

# Goñerrin aurkitutako testuak (V)

FRANTZISKO ONDARRA\*

**A**ldizkari honetan<sup>1</sup> argitaratu ditugu Goñerrin aurkitutako hogei testu. Beste bi ematen ditugu orain, haiekin batean eta beste askorekin bilduma bat egiten dutenak, bertan 6. saila<sup>2</sup> osatzen dutela.

## TESTUAK

Bi testuok predikuak dira, eta ez daude osorik. Lehenbizikoan sei estoruz hitz egin behar duela esaten digu sermoigileak, baina lauren berri ematen digu bakarrik. Bigarrenak prediku hasiera ematen digu, bestea ez duela idatzi guk ditugun paperetan. Paperak neurri hauek ditu gutxi gorabehera: 210 mm. luze eta 155 zabal. Hariz josirik zeuden. Ur markak hauek dira: 1. I FARGUES / NAVARRE. 2. Hiru zirkulu bata bestearen gainean, goikoaren barruan gurutze bat ageri dela eta beste bat gainean, beheko bi zirkuluak hutsik daudela; zirkuluen ezker eta eskuin FIN 1768 eta esku antzeko bi marrazki.

\* Euskaltzaindia.

1. ONDARRA, FRANTZISKO 1989. "Goñerrin aurkitutako sei euskal testu (1743-1753)". *FLV* XXI, 53 (1989), 97-144; idem 1990. "Goñerrin aurkitutako lau euskal testu (XVIII. m.)". *FLV* XXII, 55 (1990), 73-121; idem 1991. "Goñerrin aurkitutako beste sei testu". *FLV* XXIII, 57 (1991), 131-168; idem 1992. "Goñerrin aurkitutako testuak (IV)". *FLV* XXIV, 60 (1992), 297-333.

2. ONDARRA, FRANTZISKO 1981. "Goñibarko euskara XVIII. mendeko sermoietan". *Euskera* XXVI (1981-1), 349-365. Ik. 353 h. or.; idem 1981 b. "Polikarpo Aitak Zituen Euskal Esku-idatzi Zaharren Aurkezpena". *Euskera* XXVI (1981-2), 633-649. Ik. 645 h. or.

## NOR, NON eta NOIZ

Ez dakigu nork idatziak izan diren, ez eta non izan dire idatziak. Uste dugu XVIII. mendekoak direla, horretarako kontuan hartzen dugula ur marka, besteak beste. Nafarroako euskara darabil egileak, beraz pentsa daiteke Nafarroan eginak direla.

## HIZKUNTZAREN INGURUAN

### *Grafa*

*Bokaletan*, *v-* idatzi ohi du beti hitz hasieran, eta noizean bein *y* grekoak hitz eta silaba bukaeran, eta baita hitz hasieran ere.

*Kontsonanteetan*, oso gutxitan erabiltzen du *b-* hitz hasieran. Horrela, ikus daiteke “beneficio” 1,2,1, baina “vatalla” 1,6,5; etab.

### *Fonetika*

*Bokaletan*, gertakari asko gauzatzen da. Horrela, *ei* eta *eu* diptongoak *ai* eta *au* bihurturik aurkitzen ditugu: “*ogai*” 1,6,6; “*zain*” ‘zein’ 1,4,2; “*despainen*” 1,6,1; “*naurritue*” 1,2,1; “*daus*” 1,3,3; “*zaude*” ‘zeuden’ 1,2,3; *i-a* eta *u-a* sekuentziak *i-e* eta *u-e* bilakaturik: “*evangeliste*” 1,1; “*Izanquen*” 1,1; “*disculpe*” 1,1; “*dituden*” 1,1; “*doke*” ‘dauka’ 1,4,2; *i-e* eta *u-e* sekuentziak *i-a* eta *u-a* eginik: “*eguiñan*” 1,1; “*norbaïtac*” 1,4,2; “*nuca*” 1,2,2; “*virtatic*” 1,6,2; “*zura*” 1,5,4.

*Kontsonanteetan*, hitz amaieran *-s* da beti, eta *-st-* ere beti, baina fonetika sintaktikoa dela medio gehiago sortzen da *-zt* beharbada *-st-* baino: “*extaquit*” 2,1,2; “*eztezu*” 1,5,4; “*estu*” 1,3,3.

### *Morfologia*

*Deklinabidea*. Ergatibo plurala *-ek* da: “*emanziote prise vecatorec*” 1,5,3, baina behin bakarrik aurkitu dugu; datibo plurala *-egi* da, eta hau bera kontsonantez bukatutako izen nagusietan: “*dizquizunegui*” 1,2,1; “*Abranegui*” 2,1,3; “*Ezequiasegui*” 1,5,4; instrumental plurala *-es*: “*virtute gucies*” 1,1; soziatiboa *-kin* ia beti: “*andiarequin*” 1,1; destinaboa *-rendako*: “*ar rendaco*” 1,2,1.

*Erakusleak*. *Au*, *onec*, *onetaco*, *ontara*, *abek*; *ori*, *orrek*, *ortan*, *oiek*; *ore*, *arrek*, *artan*, *arreren*, *artan*.

*Izenordain pertsonalak*. *Ni*, *nic*, *nere*, *nites*; *zuc*, *zure*, *zaure*; *guri*, *gure*.

*Aditza*. Iraganaldian ez da beti galtzen amaierako *-n* kontsonantea: “*ezequio*” 1,3,2, baina “*oituen*” 1,2,3; “*zue*” 1,1, baina “*zuen*” 1,1; geroaldia tajutzeko beti *-en* erabiltzen da *-n* bukaeradun aditzetan: “*izanen*” 1,1; *eguiñen*” 1,1.

### *Sintaxia*

*Behar izan-ekin ez da erabiltzen ergatibo marka: “juan verdu predicacera Lazaro” 2,2; “egun au izan veardu” 1,1; “izan veardutela señaleac” 1,1; aurki daiteke genitiboa objetuaren ordez: “guizonaren formacean” 1,2,3; “penen predicazera” 2,2.*

### *Hiztegia*

Larramendiren aztarnarik ez dugu ikusi. Bestalde, hemen sartzen ditugun hitzak ez dira berriak, oso ezagunak diren hitzen aldaerak baizik. Hona zenbait berba: *bekela, ellementu-elementu, erran-esan, importazio* ‘importanzia, garrantzia’, *jasi* ‘jaso, aupatu’, *llur-lur, mertxede, minzetu, odoi, solo-solik-soi-lliken*.

### *Adizkitegia*

Goian esan bezala, ez da beti galtzen amaiereko *-n* iraganaldian, eta gerta daiteke hori perpaus nagusietan, jakina. Ikus orain zenbait adizki jakingarri izan daitezkeenak: *baiza* ‘bitez’, *degu-dugu*, *dira-dire* ‘dit’, *doke* ‘dauka’, *duze* ‘duzue’, *zaida* ‘zait’, *zaze-zazute* ‘ezazue’, *zekio* ‘zitzaison’.

### *Gure lana*

Hitz hasierako V- larria, bokala denean, U- eginik idazten dugu, eta Y- larria I- bihurturik.

Latinezko pasarteak azpimarratu egiten ditugu, berak azpimarratu gabe utzi baditu. Latin laburdurak deslaburtu egin ditugu, horren berri ez dugula ematen.

Orrialdeak guk zenbatuak dira, berak zenbatu gabe utzi zituelarik.

*Laburdurak:* a. aditza, ad. adberbioa, adj. adjetiboa, d. determinatzaila, i. izena, ik. ikus, io. izenordaina, j. juntagailua, p. posposizioa.

## 1. Testua

*Erunt<sup>1</sup> signa in sole, et luna et stellis<sup>2</sup>. Lucae cap 21.*

Egungo evangelio sanduen erratendigu evanjeliste sagratu S[a]n Lucasen Juicioco eguna vaño lenago izan veardutela señaleac Iguzquian, illarguiian, izarretan, lurrean, eta ellementu guzietan Eta au cerengatic? guri entenda-zera emateco; Eze valdin correspondicen ezpadiogu gure Jaun, eta Jangoicoac eguien dizquigun favore, eta beneficioac<sup>3</sup>, eta conservazen ezpadugu gure animaren nobleza; Iguzquia zañec arguicendigun egunes izanendela gure contra, illarguia zañec arguicendigun gaues izanendela gure contra, izarrac yzanendirala<sup>4</sup> gure contra, erorcedirela aus viurturic veren lecuatatic; Argatic erratendigu Isaias Profetac: Negar eguinazute becatoreac, Negar eguinazute dolore, eta vrriquimentu andiarequin, cerengatic datorren ya Juicioco eguna: *Ululate, quia prope est dies Domini; quia vastitas a Domino veniet.* Eta egun au izan veardu<sup>5</sup> ain terribelea eze sandu guciac ere egonen dirala pasmaturic, eta aturdituric. à zain ongui elduriran emen Job sanduanen<sup>6</sup> izac: Izaniquen vana sandu au ain adornatua virtute gicies, ege Jangoicoac verac califiquetu zue munduan orduen arquizencen ononetaco: *Quod non sit ei similis in terra, Orrequin guziarequin erratenzen: Quid faciam, cum surrexerit in iudicium Deus?* cer Izanenda nites<sup>7</sup> Jangoicoac juzgacen nauenean cer disculpe emanendiot eguitendiren cargues. Vada arrec ez soilliquen eguiñendire<sup>8</sup> cargu emandituden pausues, eze vaieta eguiñandira<sup>9</sup> cargu vstenduden<sup>10</sup> señale guzties. Eavada becatorea valdin sanduatec ezuenac eguin verceric solo Jangoicoa servizatu<sup>11</sup> au erraten vadu pasmaturic, cer erranendu becatoreac eztuenac verceric [2] solo despreciatu. Cer erranenotedu vecatu<sup>12</sup> guzietan sarturic dagonac acordagabe<sup>13</sup> gure Jaun, eta Jangoicoac eguindizquion favore, eta beneficioas, eta despreciezen duena vere Animaren nobleza? Pensabeza vada juicioco<sup>14</sup> eguna izanendela<sup>15</sup> arrendaco egunbat iras, venganzas, eta indignacios betea; vada espiritu<sup>16</sup> sandua Izani-

1. Goiko bazterrean, ezker aldeko zokoan 1825 eta 1831 dio.

2. Eskuidatzian (E) "stellis". Zuzendu ditugun latinezko okerrak: "indignacionis" 2, 1; "inteligens" 3, 4.

3. E "beneficoac".

4. "-dirala", baina "-direla" hiru bat lerro beherago.

5. Hola: "du", eta ez "da".

6. E "sanduarre" (sic -rre).

7. Lehenbizi que sera demi idatzi du, berehala ezabatu eta lerro berean cer Izanenda nites ipini.

8. "-dire", baina "-dira" sei bat hitz beherago.

9. Ez "eguiñen".

10. Espero dena "tuden" da. Ik. "errecibituden" 1, 2, 2.

11. E "serivizatu".

12. E "vectu".

13. Ez "acordatugabe".

14. E "guicioco".

15. E "ianen".

16. E "spitua".

quen ain naurritue, eta concertatue mincecean erratendu dela<sup>17</sup> eguna irarena: *Dies irae: dies indignationis* dela eguna indignacions, eta venganzas vetea. Ea vada becatorea icusi dezazu Nai vaduzu corresponditu favore, eta beneficio gure Jaun, eta Jangoicoaç eguindizquizunegui, eta conservatu zure animaren Nobleza, vstentuzularic<sup>18</sup> zure vici gaistori, eta converticenzarelaric Jangoicoarengana.

Erranendiria norbaitec; Jauna Nic naidut corresponditu gure Jaun, eta Jangoicoac eguindizquiden favore, eta beneficioegui, eta Naidut conservatu ene animaren nobleza; vaña nay nuca nic Jaquin cer favore, edo beneficio errecibituden, eta cer den nere animaren nobleza. Atendibeza, eta erranen-diot.

Creaturic zaude cerua; eta llurre<sup>19</sup>, ceruan, eta lurrean diraden gauza guiac, determinatuzueanean Jangoicoac creacea guizona *faciamus hominem ad imaginem, et similitudinem nostram*<sup>20</sup>. Vaña erreparatu vearda cer modus portatucen formacean guizona, eta cer modus creacean verce gauza guiac. Guizonas verze gañeraco gauza guiac eguiñitueñ Jangoicoac manacen. Au da erraten zuelaric: eguin vedi arguia, eguincen arguia, eguinvedi llurra, eguincen llurra, ateravaiza vrac, eta ateraciraden vrac: *fiat lux; fiat firmamentum; producant aquae*. Vaña guizonaren formacean, eze fiatu manacean, vada acuditu zuen guizonan eguitera trinidad gacia ezauzera emateco [3] cer nobleza, eta grandeza duen guizonac anima dela caso<sup>21</sup>.

Errandut lenago, gauza guiac eguiñic zaudela guizona etorri vaño lenago; Eta cergatic uste duce dela au? Ezaucera emateco creature gucien artean guizona dela perfectuena, eta guizona dela gauza guziaren Erregue, eta burua, eta epazira guizona etorri baño lenago eguiñic egon, eta compondu-ric ezequio guizonari eguiñen merejizuen erreciyimentue. Ala nola Erregue-renvat etorriçendenean Ciudadavatera componcendiraden<sup>22</sup> videac, eta veſte gañeraco gauzac errecivizeco vearduen estimacioarequin, moduontan<sup>23</sup> ve-rean errecivitu cen guizona eguitenzirəlaric<sup>24</sup>, eta componenzirəlaric gauza gustiak, eta non dic du guizonac erregue izateau, edo grandeza? non dic izan veardu solo animaren noblezatic.

Vaña oraindic adelantacendut gueiago discursua. Guizona eguin orduco erratenda descansatuzela Jangoicoa: *Requievit die septimo*. Gauza guiac eguiñitue Jangoicoac cesatugabe, vadirudi ezequiola costatu dāus gauza<sup>25</sup> guiac eguitea, eta guizona formatu onduan descansacenda cer da au? es que guizonaren obraren comparacioan verce obra guiac dirade gauza importacio guchitecoac, eta ala esty descansatu vearric; Vaña guizona da obra ain andia, eta eminentea eze vadirudi<sup>26</sup> votatu zuela vere poderearen arrestoa guizona eguitean, vada necesitacendu descansacea.

17. E de la, bi hitzetan zatiturik. Hola ere zazpi bat hitz beherago eta hurrengo orrialdearen lehenengo bi paragrafoetan.

18. Ez “dúzularic”.

19. Hiru hitz beherago “lurrean” eta “llurra”, baina “llurra” beherago paragrafo honetan bertan.

20. Bazterrean *Genesis cap 1* dio, eta *Genesis 1, 26* da.

21. Bazterretik hasita hau dago testu barruan: Ojo: paridad de el Amo†.

22. E. “componce-”.

23. E “-onta”.

24. Bi bat hitz beherago “-ziralaric”.

25. E “gaza”.

26. E. “vadirudu”.

Vaña gueiagoc<sup>27</sup> declaracenduena animaren nobleza, da yzatea trintate Jaun poderosoaren erretrato, eta Imagine perfectoa. Eta adizace cer dion Belarmino doctoac: *In anima est mens intelligens, quasi Pater; est notitia producta quasi verbum Patris; et est amor per notitiam productus quasi spiritus sanctus.* Erratendu: Ala nola den Jangoicoa vat izatean, eta [4] Irur personestan; Ala anima dela vat izatean, eta irur potencietan. Memoriéren fecundidadean<sup>28</sup> representazendu Ayta Eternoa, entendamentuen Semea; eta vorondatean zañetan egotenden Amorioa representazendu espiritu sandue.

Vaña galde eguitendut: Izanic animabat ain ederra, nola diraden Ayngueruac, eta izanic trintateco Misterioaren retrato, eta semejanza; nola Jangoicoac enzerratuzue garzelebatean ain desdichetuen nola den guizonaren gorpuza? Ortan ematendigu entendazera Aimari Jangoicoac merchede gueiago egundiola, eze Ayngueruegui. Jangoicoac creatucitue Ayngueruec ederrac, eta choil puroac, eta icusiric veren edertasuna sobervies veteric condenatzirade; eta ezedien anima icusiric vere edertasuna condenatu parazendio estorbuę zain vaita guizonaren gorpuza. Icusiduzu zure animaren nobleza? corresponditu diozu<sup>29</sup> zure Jaun, eta Jangoicoari benificio, eta favoreavec. Eta gucien gañetic ezuen padecitu zure gatic aniz afrenta, eta desonra, ezuen zure gatic iñuri vere odola vštenzuelaric guruze vatean vere vicie? Vada ezpaduzu correspondicen favoreavec guzieac zure contra Izanendire Arren odola, arren afrenta, eta arren eriozea. Ezpadetu negar eguiten dolore, eta vrriquimentu andiarequin confesazenzarelaric Profeta Isaiasec essatendizun vequela zure contra izanendira iguzquia, illargua, izarrac, eta elementu guziac. Erranen dira norbaitac: Ayta Arracio doque ezpadut correspondicen favore, eta beneficioiegui emendazen nayzelaric confesio onvaten medios; Juicioco egunean escatuco zaida contu andia. Vaño orajic vadut dembora, Eriozeco orduen eguiñendut confesio onvat eta orrequin salvatuconaiz. Ea vada nere egungo oracioaren empeñue<sup>30</sup> izan veardu desengañazea<sup>31</sup> zain dificultade andiaden orduen confesio Ona eguitea, [5] edo<sup>32</sup> converticea Jangoicoaren gracie, eta amistadera, paracendizquiodelaric vere veguan aylziñan sei estorbu, yzanedituenac eriozeco<sup>33</sup> orduan estorbatucodiotenac convertizea, Onetaco necesitacendut acudizea Maria Santissimaren<sup>34</sup> Gana erratendiodelaric Ave Maria.

Lendavizico catea, edo estorbu izanenduena vecatoreac eriozeco orduan convertizeco, yzanenda enfermedadea, edo vere corpuzaren indisposicioa.

Minzezendelaric David vecatore gogorrarequi erratendu: *Multiplicatae sunt infirmitates eorum, postea acceleraverunt:* Emanziote prise vecatorec, cengatic aumentatu ziraden veren enfermedaden accidenteac. Cerda ycustea vecatore gogorra enfermedade peligrosoa? Verela prisecan eguitenditu vere

27. Hola leitzen dugu: "gueiagoc".

28. E. "fecundidadean".

29. Dizquierdu espero da. Ik. 31 bat hitz beherago "ezpaduzu correspondicen favoreavec guziac", eta beherago "ezpadut correspondiecen favore, eta beneficioiegui".

30. E "epeñue".

31. E "desengañaza".

32. Hitz honetatik, hots, *edo-tik* hasi eta *estorbatucodiotenac convertiucea-raino* beste orrialde batean dago.

33. E "erizeco".

34. E laburturik: *S. maren*.

salvazioaren diligencieç: prisecan confesorea, sacramentuac, eta Escravaua; eta vere descuidos ez du eguiten vearduen vequela (sic).

Erratendio Profeta Isaïasen Ezequiasegui: Ea Ezequias; Ordenazquizu, edo disponizazquizu zura<sup>35</sup> gauzac, zergatic yl verdęu laster. *dispone domui tuae, quia morieris*<sup>36</sup>; Eta verela Ezequias pasmaturic, izulizendu aurpegua parete aldera: *convertit Ezechias faciem suam ad parietem.* vada Ezequias izañiquen ain justoa, eta sandue yzulzendu pasmaturic aurpegua paretera; Nora izulico du vecatus veteric dagonac? Zaudelaric enfermedadeandiarequin, assicozara accordazen zaure vecatues, eta sartuco dirade jatera ematera: Naycoduzu<sup>37</sup> vrriquitu, cerengatic ofenditu duzun Jangoicoa, eta sartuco dirade adisquideac<sup>38</sup> alegrazera, eta consolazera: Naycodezu asi considerazen zaure vaiten; eta eztezu opatuco sentidoa, sentidyarequin; Entendamente<sup>39</sup> turbaturic, memoria flaquezas veteric, eta vorondatea oſturiac. Nola naiduzu orduen confesatu? ô cer peligroan zaude.

Sarzenda faraon soberbiore<sup>40</sup> Isasoan perseguizen Jangoicoaren puebloa; eta onetaco zeramazquiien carro, eta carroza ederqui componduric; eta cansaturic Jangoicoa sufries mugituzuen odoivat, [6] despajenzuelaric ortosac, eta erraioac<sup>41</sup>, eta vrratu zituen carroza, eta carroen erruedac.

Vigarren catea, edo estorbu izanenduzuna vecatorea izanenda: Zura anima arquizen den flaueza; cergatic ez dago eguiñic virtutera. Cer examine? Cer vrriquimentu? Cer propositu izanenda orduan<sup>42</sup>? eta cer confesio espe razenduzu orduan eguitea? Orain ezpazara confesazen solic vrtatric<sup>43</sup> urtera, eta orduen gueiago obligacios, eze devocios; Nola naydezu orduen eguin prisecan. Aqui<sup>44</sup> se pone lode Absalom y lo de Valerio Måximo sobre los Cretenses.

Iruarren catea, edo estorbu yzanenduzuna<sup>45</sup> erioceco orduan vecatorea, izanenda<sup>46</sup>; zure baitan ainverze demboras dauden ha vito edo vicio gaistoaç; vada esta facil izanen zuc orduen eguinazun vesteric, vician eguitenzinduenetic<sup>47</sup>; ceren gatic erratendu San Bernardoc: Ongui vizisen dena ongui ilzendela; vana<sup>48</sup> gaizqui vizizan<sup>49</sup> dena guchiten ilzendela ongui: *Qualis vita finis ita.*

Guillermo Jugdonensec erratendu, eze monjebat joancela desertotic fe riebatera; eta ycusizuela feriartan. ojo lode el Caballo; lo de el Arbol, y lode el Gigante.

35. Ez “zure”, berdin 1, 6, 2.

36. Basterrean: *Isaias cap. 34*, baina “38.1-2 da.

37. Hemen “-duzu” eta hamahiru bat hitz beherago “-dezu”, eta beherago “eztezu”.

38. E “adisquidea”.

39. E “entendamentu”.

40. E “sobiore”.

41. Ez da ongi ikusten *e-* den ala *o-*.

42. Bi aldiz “orduan”, eta beste bi aldiz “orduen” paragrafoan.

43. Ez “vrtetic”.

44. Esaldi hau testu barruan dago.

45. E “zyzanen.”

46. E “izanda”.

47. E “eguitezinduenetic”.

48. E “vana”.

49. Hemen “vizizan”, baina sei bat hitz gorago “vizisen”.

Laugarren catega, edo estorbu yzanenduzuna eriozeco orduan, izanenda Demonioa. Cergatic orduen nola vaita azquen vatalla, votazen du vere astuziaren podorea eta arrestoa animaren galzeco.

Vada nola vecatorea resistituco diozu, edo defendatuco zara arren astucia, eta podgretic? Valdin sano Juicioan zaudelaric ezpada tentacioric<sup>50</sup>, ez payzara erorcen? valdin ongi zaudelaric ezin vazaquezu<sup>51</sup> jasi amar arroaco carga, Nori señesta arazico diozu gaizqui zaudelaric jasicoduzula ogai. Vada ongi zaudelaric [7] errendicen vazara den tentacioric chiquienari; Nola eriozeco orduan gaizqui, eta entendamentua turbaturic defendatuco zara arren podore, eta astucia gucitic. Aquí se pone: festinavit Dabid, y la pregunta de Christo a sus Discipulos.

50. E “tentaciorio” leitzen dugu.

51. Ez “vadezaquezu”.

## 2. Testua

*Erunt signa in sole, et luna, et in terris pressura<sup>1</sup> gentium. Lucae cap 21.*

Egungo Evangelioan dugu assumptoia ain Icaragarria, ece valdin ongi consideracen vadegu catholicoac izanenda asqui vecatore den gogorrena convertizeco<sup>2</sup>; da vada assumptoia Juicioco egunerenaren, zain erratendu Evangelista sagratu S[a]n Lucasen izanendela gustis icaragarria, espantosoa, eta tristea, etorricodenla Christo gure redemptorea magestade andiarequin guizonen Juzgacera, eta majestadeonequin icaratuco du, arrituco du eta losatuko duela, eta izanendire señaleac<sup>3</sup> iguzquian, illarguiian, eta izarretan. Iguzquiac estalico du vere arguitasuna, Illarguiac vere edertasuna, eta Izarrac eroricodirade aus viurturic; Eta argatic erratendigu Isaias Profetac: negar eguinunce dolore, eta vrriquimentu andiarequin, cergatic elduda ia Juicioco egun tristea, egun cruela, egun indignacios, iras, venganzas, eta calamidades vetea, eta Profeta şofoniassec dio dela<sup>4</sup> eguna iras, eta miserias vetea egunandia, eta gustis samiña.

Eta erratea egungo assumptoia ematendire ain verze vildurtasun, ece confesacendut gueiago<sup>5</sup> nainuela ez paninz ontara determinatu: Ceren gatic ainverce gaucé an icusiveardira eztaquit izanenoteden miriquen explicatu dezaquenic. Izanenoteda asqui aingueruet au explicaceco ez por cierto; izanenoteda asqui profetarenbat; vada nor izanen da solo condenatuet, ceñec experimentatuduen nola naurrizan<sup>6</sup> diran den vecaturic chiquienac.

Avariento condenatarrec oyu eguitendio infernuetatic Abranegui; Vielzazu [2] Lazaro resucitatue ene Aitaren echera predicatora ene vorz Anaegui, atera daicen veren estado gaisto etatic, eztatocen nic padecizen dituden<sup>7</sup> penen padecizera; certaco juan verdu predicatora Lazaro, eztago an Moyses, eta verce profetac, predicanen dituztenac Jangoicoaren dotrinac<sup>8</sup>? vai vada adivezate vici daicen arrepenturic. Erratendu miserableac oiec ez dirade asqui, vitor Lazaro zañec experimentatuduen azquen Juicioco egunean<sup>9</sup> cer naurriarequin naurrizen diraden vecatu chiqui guztiac

1. E “presura”.
2. E “convertizico”.
3. E “señalea”.
4. E *de la*.
5. E *gueia, ez gueiago*.
6. Hemen “naurrizan”, baina hurrengo oorialdeke paragrafo bakarrean “naurizen”.
7. E “ditude”.
8. E “dotrina”, baina ikus horren ondoren dauden hitzok: *vai vada adibezeate* (sic *bez-*).
9. E “egunea”.

## HIZTEGIA

## A

- ABEK (io.) 'hauek'. favoreavec 1, 4, 2.  
 ADISKIDE (i.) 'lagun'. adisquidea 1, 5, 4.  
 ADITU (a.) 'entzun'. adizace 1, 3, 4.  
 AILZIÑAN (p.) 'aurrean'. vere veguián (sic -an) aylziñan 1, 5, 1.  
 AINBERZE (d.) 'hainbeste'. ainverce 2, 1, 2.  
 AINGERU (i.) Lat. 'angelus'. aingueruet 2, 1, 2.  
 AMAR (d.) 'hamar'. amar 1, 6, 6.  
 AMORIO (i.) 'maitasun'. amorica 1, 4, 1.  
 ANDI (adj.) 'handi'. andia 1, 3, 3.  
 ANIMA (i.) 'arima'. anima 1, 3, 1.  
 ANIZ (d.) 'asko'. aniz afrenta 1, 4, 2.  
 -ARAIZI (a.) '-erazi'. siñestarazico 1, 6, 6.  
 ARGATIK (ad.) 'horregatik'. Argatic 1, 1.  
 ARGITASUN (i.) 'klartasun, dirdira'. arguitasuna 2, 1, 1.  
 ARKITU (a.) 'aurkitu, izan'. arquizen 1, 1.  
 ARTEAN (p.) 'tartean'. creature gucien artean 1, 3, 2.  
 ARRAZIO EDUKI (a.) 'zuzen izan'. Arracio doque 1, 4, 2.  
 ARREK (d.) 'hark'. arrec 1, 1.  
 ARRITU (a.) 'ikaratu'. arrituco 2, 1, 1.  
 ARROA (i.) 'arroba'. amar arroaco carga 1, 6, 6.  
 ASI (a.) 'hasi'. asi 1, 5, 4; assico 1, 5, 4.  
 ASKI (ad.) 'nahikoa'. izanenda asqui 2, 1, 1.  
 ATERA (a.) 'irten'. atera daicen 'exeant' 2, 2.  
 AU (d.) 'hau'. egun au 1, 1; grandezau 1, 3, 2.  
 AURPEGI (i.) 'begitarte'. aurpegua 1, 5, 4.  
 AUS (i.) 'hauts', lat. 'pulvis'. aus viurturic 2, 1, 1.  
 AZKEN (d.) 'hondar'. azquen 1, 6, 5.

## B

- BAITAN (p.) '-gan'. zure baitan 1, 6, 3.  
 BALDIN (ad.). Valdin... ezpada 1, 6, 6.  
 BAÑA (j.) 'baina'. vaña 1, 2, 2.  
 BAÑO (j.) 'baino'. Juicioco eguna vaño lenago 1, 1.  
 BAT (d.). egunbat 1, 2, 1.  
 BEAR/BER IZAN (a.) 'behar izan'. izan veardutela señaleac 1, 1; yl verdezu 1, 5, 4.  
 BEGI (i.). veguián (sic -an) aylziñan 1, 5, 1.  
 BEKATORE (i.) 'bekatari'. vecatore 1, 5, 3.  
 BEKATU (i.) 'hoben'. vecatu 2, 2.  
 BEKELA (j.) 'bezala'. vequela 1, 4, 2.  
 BERELA (ad.) 'berehala'. verela 1, 5, 4.  
 BEREN (io.) Lat. 'suorum'. veren 1, 1; etab.  
 BERZE/BESTE (d.) 'bertze'. verce 1, 2, 3; Guizonas verce... guiac 1, 2, 3; veste 1, 3, 2.  
     Gehiago berze beste baino.  
 BIELDU (a.) 'bidali, igorri'. Vielzazu 2, 1, 3.  
 BILDURTASUN (i.) 'beldurtasun'. vildurtasun 2, 1, 2.  
 BIURTU (a.) 'bilakatu'. aus viurturic 2, 1, 1.

BORZ (d.) 'bortz, bost'. *vorz* 2, 2.

BOTATU (a.) 'bota'. *votatu* zuela vere poderearen arrestoa 1, 3, 3.

## D

DAUS (d.) 'deus'. *daus* 1, 3, 3.

DEFENDATU (a.) 'kontra egin'. *defendatuco* zara 1, 6, 6.

DESPAITU (a.) 'jaurtiki, bota'. *despaizen* 1, 6, 1.

DIFIKULTADE (i.) 'eragozpen'. *dificultade* 1, 4, 2.

## E

EDERKI (ad.) 'ederto, galantki'. *ederqui* 1, 5, 5.

EDUKI (a.) 'izan'. *Arracio doque* 1, 4, 2.

EGIN (a.) 'zertu'. *eguiñen* 1, 1.

EGON (a.) 'izan' *egonen* 1, 1; *egon* 1, 3, 2.

EGUN (i; ad.) Lat. 'dies'; 'gaur'. *egun* au 1, 1; *egungo* 1, 1.

ELDU (a.) 'etorri'. *elduda* 'dator'. 2, 1, 1.

ELEMENTU (i.) 'gauza'. *ellementu* 1, 1; *elementu* (sic -l-) 1, 4, 2.

EMAN (a.). entendazera *emateco* 1, 1; *emandituden* pausues 1, 1.

EMENDATU (a.) 'zentzatu, zuzendu'. *emendazen* 1, 4, 2.

ENE (io.) 'nere'. *ene* animaren 1, 2, 2. *ene* aitaren 2, 2.

ENTENDAMENTU (i.) 'adimen'. *Entendamentu* 1, 5, 4.

ENTENDATU (a.) 'ulertu, aditu'. *entendazera* 1, 1.

ERAMAN (a.) 'eroan'. *zeramazquien* 1, 5, 5.

ERIOZE (i.) 'hiltze'. *eriozea* 1, 4, 2.

ERORI (a.) 'jausi'. *erorico* 2, 1, 1.

ERRAN/ESAN (a.). *erran* 1, 3, 1; *erranen* 1, 4, 2; *essaten* 1, 4, 2. Behin ikusi dugu *esan*.

ERREZIBITU (a.) 'hartu'. *errecivitu* 1, 3, 2.

ERRUEDA (i.) 'gurpil'. *carroen erruedac* 1, 6, 1.

ESKATU KONTU (a.) 'kontuak galdetu'. *escatuko... contu* andia 1, 4, 2.

ESKRABAU (i.) 'eskribau'. *Escravaua* 1, 5, 3.

ESPIRITU SANDUA (i.). *espiritu sandue* 1, 4, 1.

ESTALI (a.) 'gorde'. *estalico* du 2, 1, 1.

ESTORBU (i.) 'oztopo'. *estorbu* 1, 5, 2.

ETA (j.) 'ta'. dolore, *eta* vrriquimentu 1, 1.

ETXE (i.). *echera* 2, 2.

EZAUTU (a.) 'ezagun, jakin'. *ezauzera* emateco 1, 2, 3.

EZE (j.). entendazera emateco *eze* 1, 1; ain... *eze* 1, 1; ez soilliquen... *eze* vaieta 1, 1.

EZIN IZAN (a.). *ezin vazaquezu* 1, 6, 6.

## G

GABE (p.) 'barik'. *cesatugabe* 1, 3, 3; acorda *gabe* 1, 2, 1.

GAIN (i.) 'goiko alde'. *gucien gañetic* 1, 4, 2.

GAISTO (adj.) 'gaizto'. *gaistori* 1, 2, 1.

GAIZKИ (ad.) 'txarto'. *ongui... gaizqui* 1, 6, 3.

GALDE EGIN (a.) 'itaundu'. *galde eguitendut* 1, 4, 2.

GANERAKO (d.) 'enparau'. *verze ganeraco gauza guciac* 1, 2, 3.

GARZELE (i.) 'espetxe'. *garzelebatean* 1, 4, 2.

GAU (i.). *gaues* 1, 1.

GEIAGO (ad.) 'gehiago'. *gueiago* 1, 3, 3.

GORPUZ (i.) 'gorputz'. *gorpuza* 1, 4, 2. Ik. KORPUZ.

GU (io.), *guri* 1, 1; *gure* 1, 1.

GURUZE (i.) 'gurutze'. *guruze vatean* 1, 4, 2.

GUSTIS (ad.) ‘guztiz, oso’. *gustis icaragarria* 2, 1, 1. Ik. TXOIL.

GUTXI (d.) ‘guti, urri’. importacio *guchitecoac* 1, 3, 3; *guchiten* 1, 6, 3.

GUZI/GUZTI (d.) ‘den’. *gucietan* 1, 2, 1; *guztietan* 1, 1; *gustiac* 1, 3, 2.

## I

IA (ad.) ‘dagoeneko’. eluda *ia* 2, 1, 1. cerengatic datorren *ya* 1, 1.

IGUZKI (i.) ‘eguzki’. *Iguzquian* 1, 1.

IKARAGARRI (adj.) ‘izugarri, itzel’. *icaragarria* 2, 1, 1.

IKARATU (a.) ‘harritu, lotsatu’. *icaratuco* du 2, 1, 1.

IKUSI (a.). *icusi* dezazun 1, 2, 1; *ycusi* 1, 6, 4.

IL (a.) ‘hil, zendo’. *yl* verdezu 1, 5, 4.

ILLARGI (i.) ‘ilargi’. *illarguan* 1, 1.

IMAJINE (i.) ‘irudi’. *Imagine* perfectoa 1, 3, 4.

INFERNU (i.) ‘suleize’. *infernuetatic* 2, 1, 3.

IMPORTAZIO (i.) ‘garrantzia’. *importacio* guchitecoac 1, 3, 3.

IRUDI (a.) ‘eman’. *vadirudi* 1, 3, 3.

IRUR/IRUGARREN (d.) ‘hiru; hirugarren’. *Irur* personetan 1, 4, 1; *Irugarren* 1, 6, 2.

ISASO (i.) ‘itsaso’. *Isasoan* 1, 5, 5.

ISURI (a.) ‘ixuri’. *isuri* vere odola 1, 4, 2.

IZ (i.) ‘hitz’. *izac* 1, 1.

IZAN (a.) ‘izandu’. *izanen* 1, 1; *izaniquen* 1, 1; *izan* veardu 1, 1.

IZAR (i.). *izarretan* 1, 1.

IZULI (a.) ‘itzuli,bihurtu’. *izulizendu* aurpeguia 1, 5, 4; *yzulzendo* 1, 5, 4; *izulico* du 1, 5, 4.

## J

JAKIN (a.). ‘ezagutu’. *Jaquin* 1, 2, 2.

JAN (a.). *jatera* 1, 5, 4.

JANGOIKO (i.) ‘Jaungoiko’. *Jangoicoac* 1, 1.

JASI (a.) ‘jaso, aupatu’. *jasi* amar arroaco carga 1, 6, 6; *jasicoduzula* ogai 1, 6, 6.

JAUN (i.). *Jaun* 1, 1.

JOAN/JUAN (a.). *joan* 1, 6, 4; *juan* 2, 2.

## K

KARGU (i.) ‘salaketa’. eguiñendire *cargu* 1, 1.

KARRO (i.) ‘gurdi, orga’. *carro*, eta carroza 1, 5, 5.

KASO (i.) ‘gatik’. anima dela *caso* 1, 3, 1.

KATEA (i.). *catea*, edo estorbu 1, 5, 2.

KONFESATU (a.) ‘aitortu’. *confesatu* 1, 5, 4.

KONPONDU (a.) ‘moldatu’. *componduric* 1, 3, 2.

KONTRA (p.) ‘aurka’. *contra* 1, 1.

KONTU. Ik. ESKATU KONTU.

KORPUZ (i.) ‘gorputz’. *corpuzaren* 1, 5, 2. Ik. GORPUZ.

## L

LASTER (ad.) ‘berehala’. *laster* 1, 5, 4.

LEKU (i.) ‘toki’. *lecuetatic* 1, 1.

LENAGO (ad.) ‘lehenago’. Errandut *lenago* 1, 3, 2.

LOSATU (a.) ‘lotsatu, ikaratu’. *losatuco* 2, 1, 1.

LENDABIZIKO (d.) ‘lehenbiziko’. *Lendavizico* categ 1, 5, 2.  
LUR (i.). illarguiian, izarretan, *lurrean* 1, 1.

M

MANATU (a.) ‘agindu’. *manacen* 1, 2, 3.  
MEDIO (i.) ‘bitarte’. *confesio* onvaten *medios* 1, 4, 2.  
MERTXEDE (i.) ‘mesede’. *merchede* gueago 1, 4, 2.  
MEREJI IZAN (a.) ‘zor izan’. *merejizuen* 1, 3, 2.  
MI (i.) ‘mihি’. *miriquen* 2, 1, 2.  
MINZETU (a.) ‘mintzatu’. *mincecean* 1, 2, 1.  
MODU (i.) ‘era, gisa’. *modus* 1, 2, 3.  
MUNDU (i.) ‘lur’. *munduan* 1, 1.

N

NAI IZAN (a.) ‘gura izan’. *naidut* 1, 2, 2; Naycoduzu 1, 5, 4.  
NAURRI (i.) ‘neurri’. *naurriarequin* 2, 2.  
NAURRITU (a.) ‘neurtu’. *naurritue* 1, 2, 1; *naurrizen* 2, 2.  
NEGAR EGIN (a.). *negar eguinazcace* 2, 1, 1.  
NERE (io.) ‘ene, nire’. *nere* animaren nobleza 1, 2, 2.  
NI (io.). *izanenda nites* 1, 1; *Nic* *naidut* 1, 2, 2.  
NONDIK (ad.). *non dic du* guizonac...? 1, 3, 2.  
NORA (ad.). *Nora* izulico du...? 1, 5, 4.  
NORBAIT (io.) ‘batenbat’. *norbaitec* 1, 2, 2.

O

ODOI (i.) ‘hodei’. *odoivat* 1, 5, 5.  
ODOL (i.). *isuri vere odola* 1, 4, 2.  
OGAI (d.) ‘hogei’. *ogai* 1, 6, 6.  
OIEK (io.) ‘horiek’. *oiec* ez dirade asqui 2, 2.  
OIU (i.) ‘oihu, deiadar’. *oyu* eguitendio 2, 1, 3.  
ON (adj.). *on* 1, 4, 2; *onenetaco* 1, 1.  
ONDUAN (ad.) ‘eta gero, ondoren’. guizona formatu *onduan* 1, 3, 3.  
ONGI (ad.) ‘ondo’. *zain ongui* 1, 1.  
OPATU (a.) ‘?’. eztezu *opatuco* sentidoa, sentidyarequin, 1, 5, 4.  
ORAIN/ORAINDIK (ad.; ad.). *orain* 1, 6, 2; *oraindic* ‘oraino’ 1, 3, 3. Ik. ere *orañic* 1, 4, 2.  
ORDU (i.) ‘une, mementu’. Eriozezo *orduen* 1, 4, 2; Eriozezo *orduan* 1, 5, 1.  
ORDUAN/ORDUEN (ad.) ‘une hartan, mementu artan’. *orduan* 1, 6, 2; *orduen* 1, 4, 2.  
ORDUKO (ad.) ‘bezain laster’. *eguin orduco* 1, 3, 3.  
ORE (io.) ‘hura’. *so[ber]biore* 1, 5, 5; *artan* 1, 6, 4.  
ORI (io.) ‘hori’. *gaistori* 1, 2, 1; *ortan* 1, 4, 2.  
ORTOS (i.) ‘ortots, trumoi’. *ortosac* 1, 6, 1.  
OSTU (a.) ‘hoztu’. *osturic* 1, 5, 4.  
OTE (ad.) ‘ete’. Cer erranenotedu...? 1, 2, 1.

P

PARATU (a.) ‘ipini, jarri’. *parazendio estorhue* 1, 4, 2.  
PARETE (i.) ‘horma’. *parete* aldera 1, 5, 4.  
PAUSU (i.) ‘urrats’. emandituden *pausues* 1, 1.

PODERE/PODORE (i.) 'ahal, botere'. *poderearen* 1, 3, 3; *podere* 1, 7. Normalki *podore dago*.  
PUEBLO (i.) 'herri'. Jangoicoaren *puebloa* 1, 5, 5.

## R

REDEMPTORE (i.) 'Salbatzaile'. *redemptorea* 2, 1, 1.  
RESUZITATU (a.) 'berpiztu'. *resucitatue* 2, 2.

## S

SAGRATU (adj.) 'sakratu'. evanjeliste *sagratu* 1, 1.  
SAKRAMENTU (i.) 'sakramendu'. *sacramentuac* 1, 5, 3.  
SAMIN (adj.) 'garrazt'. *samina* 2, 1, 1.  
SANDU (adj.) 'saindu, santu'. *sandu* 1, 1.  
SEI (d.). *sei* estorbu 1, 5, 1.  
SEME (i.). *Semea* 1, 4, 1.  
SEÑALE (i.) 'ezaugarri, marka'. *señale* 1, 1; *señaleac* 1, 1.  
SERBIZATU (a.) 'zerbitu'. Jangoicoa *servizatu* 1, 1. Ik. lehenengo testuko 11. oharra.  
SINESTATU (a.) 'sinestu'. *sinestarazico* 1, 6, 6.  
SOILLIKEN (ad.) 'bakarrik'. *soilliquen* 1, 1. Ik. SOLO/SOLIK.  
SOLO/SOLIK (ad.) 'bakarrik'. ezuenac eguin verceric *solo* Jangoicoa *servizatu* 1, 1; Orain espazara confesazen *solic* vrtatic (sic -a-) vrtera 1, 6, 2.

## T

TRINIDADE/TRINTATE (i.) 'Hirutasun'. *trinidad* 1, 2, 3; *trintate* 1, 3, 4.  
TXIKI (adj.) 'txipi, xume'. *chiqui* 2, 2; *chiquienari* 1, 7.  
TXOIL (ad.) 'txit, oso'. choil puroac 1, 4, 2. Ik. GUSTIS.

## U

URRATU (a.) 'hondatu, apurtu'. *vrratu* zituen 1, 6, 1.  
URRIKIMENTU (i.) 'damu'. *vrriquimentu* 1, 1.  
URRIKITU (a.) 'damutu'. *vrriquitu* 1, 5, 4.  
URTE (i.). *vrtratic* (sic -a-) vrtera 1, 6, 2; *urtean bebin*.  
USTE IZAN (a.) 'pentsatu'. *vste duce* 1, 3, 2.  
UZI (a.) 'laga, larga'. *vstenduden* 1, 1.

## Z

ZAIN (io.; ad.) 'zein'. parazendio estorbue, *zain* vaita guizonaren gorpua 1, 4, 2; da vada assumptoa Juicioco egunetxera, *zain* erratendu Evangelista sagraru San Lucasen izanendela... 2, 1; *zain* ongui 1, 1. Ik. ZEIN.  
ZAURE (io.) 'zure, zeure'. *zaure* vaiten 1, 5, 4.  
ZEIN (io.). Lat. 'qui'. solo condonatuet, *ceñec* experimentatuduen 2, 1, 2. Behin ikusi dugu *zein*.  
ZER (io.) Lat. 'quid'. *Cerda* 1, 5, 3; *certaco* 2, 2.  
ZERENGATIK/ZERGATIK (io.; ad.) Lat. 'quia; quare'. *cerengatic* 1, 1; *cerengatic* 1, 1; *quare*; *cergatic* 1, 5, 4; 1, 3, 2.  
ZERU (i.) 'ortze'. *cerua* 1, 2, 3.  
ZU (io.). *zuc* 1, 6, 3; *zaure* 1, 5, 4; *zure* baitan 1, 6, 3.

## ADIZKITEGIA

## B

BAIZA ‘bitez’. atera *vaiza* vrac 1, 2, 3.  
 BANINZ ‘banintz’. ez *paninz* ontara determinatu 2, 1, 2.  
 BEDI ‘bedi’. eguin *vedi* 1, 2, 3.  
 BETOR ‘betor’. *votor* ‘veniat’ 2, 2.  
 BEZA ‘beza’. Pensabeza 1, 2, 1; Atendibeha 1, 2, 2.  
 BEZATE ‘bezate’. adivezate 2, 2.

## D

DA ‘da’. izanenda 1, 1; *den* 1, 2, 2; *dela* 1, 1; *delaric* 1, 5, 3.  
 DAGO ‘dago’. *dago* 1, 6, 2; *dagonac* 1, 2, 1.  
 DAIZEN ‘daitezen’. atera *daicen* 2, 2.  
 DAKIT ‘dakit’. *eztaquit* 2, 1, 2.  
 DATOR ‘dator’. *datorren* 1, 1.  
 DAUDE ‘daude’. *dauden* 1, 6, 3.  
 DATOZEN ‘datozen’. *eztacacen* ‘veniant’ 2, 2.  
 DEGU ‘dugu’. *vadegu* 2, 1, 1. Ik. DUGU.  
 DET ‘dut’. *det* 1, 3, 3. Ik. DUT.  
 DEZAKE ‘dezake’. *eztaquit* izanenoteden mırıquen explicatu *dezaquenic* 2, 1, 2.  
 DEZAZU ‘ezazu’. icusi *derazu* 1, 2, 1.  
 DEZU ‘duzu’. *ezpadetu* 1, 4, 2; *eztezu* 1, 5, 4. Ik. DUZU.  
 DIGU ‘digu’. *erratendigu* 1, 1.  
 1 DIO ‘dio’. *erratendio* 1, 5, 4. *eguindiola* 1, 4, 2.  
 2 DIO ‘esaten du’. *dio* 2, 1, 1; *dion* 1, 3, 4.  
 DIOGU ‘diogu’. correspondicen *ezpadiogu* 1, 1.  
 DIOT ‘diot’. *emanendiot* 1, 1; erraten *diodelaric* 1, 5, 1.  
 DIOTE ‘diote’. estorbatucodiotenac 1, 5, 1.  
 DIOZU ‘diozu’. corresponditu *diozu* 1, 4, 2. Ik. lehenengo testuko 29. oharra.  
 1 DIRA/DIRE ‘dira’. *veardira* 2, 1, 2; *diran* 1, 1; *dirala* 1, 1; *dire* 1, 4, 2; *direla* 1, 1.  
 2 DIRA/DIRE ‘dit’. erranendira 1, 2, 2; *eguiñendire* 1, 1.  
 DIRADE ‘dira’. *dirade* 1, 3, 3.  
 DIRUDI ‘dirudi’. *vadirudi* 1, 3, 3.  
 DITU ‘ditu’. *ditu* 1, 5, 3; *dituenac* 1, 5, 1.  
 DITUT ‘ditut’. *dituden*, 1, 1.  
 DITUZTE ‘dituzte’. *dituztenac* 2, 2. Ik. bigarren testuko 8. oharra.  
 DIZKIGU ‘dizkigu’. *dizquigun* 1, 1.  
 DIZKIO ‘dizkio’. *dizquion* 1, 2, 1.  
 DIZKIOT ‘dizkiot’. paracendizquiodelaric 1, 5, 1.  
 DIZKIT ‘dizkit’. *dizquiden* 1, 2, 2.  
 DIZKIZU ‘dizkizu’. *dizquizunegui* 1, 2, 1.  
 DIZU ‘dizu’. *essatendizun* 1, 4, 2.  
 DOKE ‘dauka’. Arracio *doque* 1, 4, 2.  
 DU ‘du’. izan *veardu* 1, 1; *duen* 1, 2, 3.  
 DUGU ‘dugu’. *dugu* 1, 1. Ik. DEGU.  
 DUT ‘dut’. *naidut* 1, 2, 2; *vstenduden* señale guzties 1, 1: adibide honetan ‘ditut’ esan nahi  
 du. Ik. lehenengo testuko 10. oharra. Cf. DET.  
 DUTE ‘dute’. *dutela* 1, 1.

DUZE ‘duzue’. *duce* 1, 3, 2.

DUZU ‘duzu; dituzu’. *duzu* 1, 2, 1; *ezpaduzu* 1, 4, 2.

## N

NAIZ ‘naiz’. *naiz* 1, 4, 2; *nayzelaric* 1, 4, 2.

NAU ‘nau’. *nauenean* 1, 1.

NUE(N) ‘nuen’. *nainuela* 2, 1, 2.

NUKA ‘nuke’. *nay nuca* 1, 2, 2.

## T

TUT ‘ditut’. cer... beneficio errecibituden 1, 2, 2. Ik. DITUT.

TUZU ‘duzu’ (sic). vstentuzularic zure vici gaistori 1, 2, 1.

## Z

ZAIDA ‘zait’. escatuco *zaida* 1, 4, 2.

ZAKEZU ‘dezakezu’. *ezin vazaquezu* jasi 1, 6, 6.

ZARA ‘zara’. *zara* 1, 5, 4; *zarelaric* 1, 2, 1.

1 ZAUDE ‘zaude’. *zaude* 1, 5, 4.

2 ZAUDE ‘zeuden’. *creaturic zaude* 1, 2, 3; *zaudela* 1, 3, 2.

ZAZE ‘ezazue’. *adizace* 1, 3, 4. Ik. ZAZUTE.

ZAZKIZU ‘itzazu’. *Ordenazazquizu* 1, 5, 4; *disponizazquizu* 1, 5, 4.

ZAZU ‘ezazu’. *Vielzazu* 2, 1, 3.

ZAZUN ‘dezazun’. *eguinazun* 1, 6, 3.

ZAZUTE ‘ezazue’. *eguinazzute* 1, 1. Ik. ZAZE.

ZE/ZEN ‘zen’. *eze fiatu* 1, 2, 3; *eguincen* 1, 2, 3.

ZEDIEN ‘zedin’. *ezedien...* condenatu 1, 4, 2.

ZEKIO ‘zitzaion’. *ezpazira...* *ezequio* guizonari eguiñen 1, 3, 2; *ezequela* costatu daus 1, 3, 3.

ZERAMAZKI(EN) ‘zeramatzan’. *zeramazquiero* carro, eta carroza 1, 5, 5.

ZINDUE(N) ‘zenuen’. *zinduenetic* 1, 6, 3.

ZIOTE ‘zioten’. *emanziote* 1, 5, 3.

ZIRA ‘ziren’. *ezpazira* 1, 3, 2; *ziralaric* 1, 3, 2; *zirelaric* 1, 3, 2.

ZIRADE(N) ‘ziren’. *cerengatic aumentatu* *ziraden* 1, 5, 3.

ZITUE/ZITUEN ‘zituen’. *eguincitue* 1, 3, 3; *eguincituen* 1, 2, 3.

ZUE/ZUEN ‘zuen’. *ain...* *ece...* califiquetu *zue* 1, 1; erratenzuen 1, 1.

## LABURPENA

Bi euskal testu argitaratzen ditugu. Aldizkari honetan eman genituen beste hogeい texturekin eta argitara gabe dauden beste askorekin bilduma bat osatzen dute. Goñerrin dagoen Munarritz herrian izan ziren aurkituak denak orain dela hirurogeita hamar bat urte eta bilduma horretan 6. saila betetzen dute. XVIII. mendekoak izan daitezke.

Laburkiro azaltzen ditugu eskuidatziak, noiz izan ziren idatziak jakiteko batez ere. Ukitzen ditugu hizkuntzari buruzko zenbait puntu, horrela Nafarroako euskara darabilela autoreak erakusten delarik.

## RESUMEN

Damos a conocer dos textos inéditos en vascuence. Forman parte de una colección de textos, veinte de los cuales han aparecido en esta revista. Fueron hallados hace unos setenta años en Munárriz, pueblo del valle de Goñi, situado en Navarra en la Merindad de Estella. Forma el sexto grupo de la colección y fueron compuestos en el s. XVIII, según creemos.

Damos una breve descripción de los manuscritos para averiguar la fecha de composición, sobre todo. Presentamos varios fenómenos lingüísticos, para mostrar que se trata del vascuence navarro.

## RESUME

Nous présentons deux textes inédits en basque. Ils font partie d'une collection de textes desquels vingt ont été publiés dans cette revue. Ils furent trouvés il y a 60 ans à Munárriz, village de la vallée de Goñi, situé en Navarre dans le Bailliage d'Estella. Ils font partie du sixième groupe de la collection et ont été rédigés durant XVIII<sup>e</sup> siècle, selon ce que nous croyons.

Nous présentons une brève description des manuscrits pour pouvoir surtout deviner la date de la composition. Ainsi nous montrons des différents phénomènes linguistiques qui démontrent que cela traite du basque navarrais.

## SUMMARY

We publish two documents in the Basque language, unedited so far. They belong to a collection composed of many texts written in the 18th century and used again in the 19th. The collection was found about 70 years ago in Munarritz, a village in the High-Navarrese valley called Goñerria/Valdegoñi. These texts make up the 6th set in the collection.

In a brief introduction we describe the manuscripts and attempt to know the date they were written at. We offer some language facts in order to show that they are composed in the Basque spoken in Navarre.

